

DIRU ITURRIAK

Diru sarrerrei dagokionez, zaila izango zaigu hasieratik aplikazioarekin bakarrik diru-sarrerak edukitzea. Hain zuzen ere, erabiltzaileen artean duen arrakastaren arabera izango da gure enpresaren diru-iturria. Izan ere, zenbat eta jende gehiagori gustatu gure zerbitzua, pertsona gehiagok nahiko dute **premium** egin, eta beraz, diru sarrera gehiago izango ditugu. Horregatik, oso garrantzitsua izango zaigu publizitate kanpainak (salmenta bideoa, sareko eta pankarta fisikoak, flyers, igogailu, autobus eta merkataritza gunetarako telebistako iragarkiak...) egitea eta ahalik eta jende gehiagoren artean zabaltzea.

Bestalde, banner teknika erabiliko dugu zenbait enpresei gure enpresa ezagutarazteko; iragarkia egiteko erabiliko dugu (adibidez: sare sozial batean edota Internen, 10 segundu edo gehiagotan gure enpresaren berri ematea eta patrozinatzea). Bestalde, arestian esan dugun bezala, beldurrezko esperientzia, abenturazko esperientzia, Euskaldunak euskaldunen artean ezkutuko elkarketa... izango ditugunez pertsona ospetsuei gure enpresaren iragarkiak egiteko esango diegu. Ane Igartiburuk, esaterako, programa bat abian jarri zuen ezkutuko zitak izateko. Beraz, amodiozko esperientziak bizitzeko iragarkia egiten dugunean bere irudia garrantzitsua izango da. Bestalde, oso garrantzitsua izango zaigu Jon Gotzon (Gaztea Irratiko esataria) bezalako pertsonen laguntza ere iragarkiak egiterako orduan. Umore puntuarekin gure zerbitzu zabaltzeko modua izango baita.

Horrez aparte, beste diru iturrietako bat izango da beste enpresek gure aplikazioan iragarkiak egiteko aukera izatea. Izan ere, aplikazio bat denez, iragarkia espezialki gure aplikazioan egin nahi badu ordainketa bat egin beharko baitigu.